# Xedapen Orokorrak

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**665**

AGINDUA, 2009ko abenduaren 17koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren barne erregimeneko erregelamendua argitaratzea agintzen duena.

Euskadiko nekazaritza eta elikadura ekologikoari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Legeak Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua, aurrerantzean Kontseilua, sortu zuen zuzenbide publikoko korporazio gisa, nortasun juridiko propioarekin eta bere eginkizunak betetzeko jarduteko ahalmen osoarekin Xedapen horretako 6. artikuluan zehaztuta daude eginkizun horiek. Horien artean, c) idatz-zatiak honako hau finkatzen du: «Nekazaritzaren arloko eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailari nekazaritzako ekoizpen ekologikoaren arau teknikoen multzoa eta barne-erregimeneko erregelamendua proposatzea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko; azken erregelamendu horrek, beste batzuen artean, ondorengoak zehaztuko ditu: langile propioak eta ondarea. Aurreikusitako helburuak eta Kode Zibilaren 39. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute horiek guztiek». Era berean, azken xedapenen artean lehenak honako hau ezartzen du: «Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak gehienez ere sei hilabeteko epean barne-erregimeneko erregelamendua idatzi eta onartu beharko du, eta beste kontu batzuen artean, hauteskunde-sistema nolakoa izango den zehaztu beharko du, lege honetan aipatzen diren ordezkaritzak bermatuko direla ziurtatu ahal izateko». Kontseiluak 2008ko azaroaren 25eko bilkuran erregelamendua onartu zuenez eta abenduaren 29ko 10/2006 Legeak ezartzen dituen manuak betetzen dituela ikusita, nekazaritza-arloan eskuduna den sailari dagokio –hau da, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari– erregelamendua argitaratzeko onartzea.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**665**

ORDEN de 17 de diciembre de 2009, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se ordena la publicación del Reglamento de Régimen Interno del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

La Ley 10/2006, de 29 de diciembre, de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi, creó el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi, en adelante el Consejo, como corporación de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus funciones. Estas funciones aparecen detalladas en el artículo 6 de la citada disposición. Su apartado c) fija, entre ellas, la de «elaborar y proponer al departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria, para su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, el cuadro de normas técnicas de producción agraria ecológica, así como el reglamento de régimen interno, que regulará, entre otros, el personal propio y el patrimonio, que deberá cumplir los fines previstos y en todo caso lo dispuesto en el artículo 39 de Código Civil.» Asimismo, la Disposición Final Primera establece que «El Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi, en un plazo máximo de seis meses, elaborará y aprobará el reglamento de régimen interno que deberá establecer, entre otros aspectos, el sistema electoral que asegure la representación que prevé la presente Ley». Una vez aprobado el reglamento por el Consejo en su sesión de 25 de noviembre de 2008, y visto que el mismo cumple con las prescripciones que marca la Ley 10/2006, de 29 de diciembre, le corresponde al departamento competente en materia agraria esto es, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, ordenar la publicación del mismo.

Horren indarrez, honako hau

EBATZI DUT:

Agindu honen eranskinean bilduriko Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren barne-erregimeneko erregelamendua argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 17a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

ERANSKINA

EUSKADIKO NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOAREN KONTSEILUAREN (AURRERANTZEAN ENEEK) BARNE ERREGIMENEKO ERREGELAMENDUA, NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 29KO 10/2006 LEGEAK SORTURIKOA

Irailaren 24ko 229/1996 Dekretuaren bidez, nekazaritza ekologikoaren ekoizpena, elaborazioa eta merkaturatzea arautu ziren, eta Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoaren Euskal Kontseilua sortu zen Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren organo kolegiatu gisa, nekazaritza ekologikoaren alorrean kontsulta- eta lankidetza-eginkizunak egikaritzeko. Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzari atxikita zegoen organikoki eta hierarkikoki, eta erakunde horrek egikaritu ditu orain arte kontrol-agintaritzaren eginkizunak Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparruan, ekainaren 28ko 834/2007 zenbakiko Erregelamenduaren (EEE) 27. artikuluan ezarritako kontrol-sistema aplikatuta.

Kontseiluari garrantzi handiagoa emate aldera, eta horrenbestez, bertan ordezkaturiko sektoreei ere bai, Kontseiluaren konfigurazio juridikoa aldatzea erabaki da. Abenduaren 29ko 10/2006 Legearen bidez, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua sortu zen zuzenbide publikoko korporazio gisa, nortasun juridiko propioarekin, autonomia ekonomikoarekin eta jarduteko ahalmen osoarekin nekazaritza-ekoizpen ekologikoari aplika dakiokeen erregimenaren ondoriozko eginkizunak betearazteko eta nekazaritza- eta elikadura-produktuetan dagokion adierazlea ezartzeko.

Etapa berri horretan, Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko eta indarreko araudian bilduriko helburuetarako eta betebeharren betetzerako egokitzapenari buruzko gainbegiratze- eta tutoretza-eginkizunak soilik gordetzen ditu Administrazioak.

En su virtud,

RESUELVO:

Ordenar la publicación del Reglamento de Régimen Interno del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi que se acompaña en el anexo a esta Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 2009.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

ANEXO

REGLAMENTO DE RÉGIMEN INTERNO DEL CONSEJO DE AGRICULTURA Y ALIMENTACIÓN ECOLÓGICA DE EUSKADI, EN ADELANTE ENEEK CREADO POR LEY 10/2006, DE 29 DE DICIEMBRE, DE AGRICULTURA Y ALIMENTACIÓN ECOLÓGICA DE EUSKADI

Mediante el Decreto 229/1996, de 24 de septiembre, se reguló la producción, elaboración y comercialización agrícola ecológica, y se creó el Consejo Vasco de la Producción Agraria Ecológica como órgano colegiado del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, para ejercer las funciones de consulta y colaboración en materia de agricultura ecológica. Se encontraba adscrito orgánica y jerárquicamente a la Dirección de Calidad Alimentaria, que es quien ha ejercido hasta la actualidad las funciones de autoridad de control, en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en aplicación del sistema de control establecido en el artículo 27 del Reglamento (CEE) n.º 834/2007, de 28 de junio.

Con el fin de otorgar más relevancia al consejo, y, por tanto, a los sectores en él representados, se decide modificar su configuración jurídica. Mediante la Ley 10/2006, de 29 de diciembre, se crea el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi como corporación de derecho público, con personalidad jurídica propia, autonomía económica y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de las funciones derivadas del régimen aplicable a la producción agrícola ecológica y su indicación en los productos agrarios y alimentarios.

En esta nueva etapa la Administración se reserva únicamente las funciones de supervisión y tutela sobre el funcionamiento del consejo y sobre su adaptación a las finalidades y cumplimiento de obligaciones recogidas en la normativa vigente.

Kontseiluak Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailari barne-erregimeneko erregelamendu hau proposatzen dio onar dezan, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren eginkizunei buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Legearen 6. artikuluaren 1. idatz-zatiaren c) letran ezarritakoari jarraiki, baita azken xedapenen arteko lehenengoan ezarritakoari jarraiki ere.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak ENEEk izena edo marka hartuko du (bere euskarazko siglak dira) irudi korporatiboan, sustapen- eta dibulgazio-materialetan, domeinu elektronikoetan eta beste argitalpen batzuetan (Kontseiluak 2008ko azaroaren 25ean aho batez harturiko erabakia).

***2. artikulua.***– Eskumenen esparrua.

ENEEKen eskumenen esparrua honela finkatuta egongo da:

a) Lurraldeari dagokionez, Euskadiko Autonomia Erkidego osora.

b) Produktuei dagokienez, 834/2007 EEE Erregelamenduaren 1. artikuluan definiturikoak, baita arau teknikoen koadernoetan bilduta dauden lehenengoak lortzeko erabilitako beste produktu batzuk ere.

c) Pertsonei dagokienez, fisikoak eta juridikoak, betiere beren jarduera ENEEKi behar bezala jakinarazi badiete eta haren mende jartzen badira.

***3. artikulua.***– Kontrol-agintaritza.

ENEEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua izango da Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparruan kontrol-sistema aplikatzeaz arduratuko den kontrol-agintaritza, 834/2007 Erregelamenduaren (EEE) 27. artikuluan ezarritako nekazaritza-produktu ekologikoen kontrol-sistema aplikatuta.

***4. artikulua.***– ENEEKek gomendaturiko produktu, zerbitzu edota establezimenduak.

1.– ENEEKek 834/2007 Erregelamenduaren (EEE) 1. artikuluan aipaturikoez bestelako produktuen erabilera gomendatu ahalko du, produktua lortzeko zuzenean edo zeharka esku hartzen badute, baita erregistroan izena emandako ustiapen eta pertsonei emandako zerbitzuena ere, eta merkataritza-establezimendu jakin batzuena ere bai, «ENEEKek gomendaturiko produktu, zerbitzu edo establezimendua» adierazlea edo antzeko bat erabilita.

El Consejo propone este Reglamento de Régimen Interno al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca para su aprobación conforme a lo establecido en al artículo 6, apartado 1 letra c) de la Ley 10/2006, de 29 de diciembre, referente a las funciones del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi y en la Disposición final primera.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

El Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi adoptara la mención o marca ENEEK, sus siglas en euskera, en la imagen corporativa, materiales promocionales y de divulgación, dominios electrónicos y otras publicaciones (Acuerdo por unanimidad del Consejo de 25 de noviembre de 2008).

***Artículo 2.***– Ámbito de competencias.

El ámbito de competencias de ENEEK estará determinado:

a) En lo territorial, para toda la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) En relación a los productos, los definidos en el artículo 1 del Reglamento CEE 834/2007, así como otros productos utilizados en la obtención de los primeros que se encuentren incluidos en los Cuadernos de normas técnicas.

c) En cuanto a las personas, las físicas y las jurídicas que hayan notificado debidamente a ENEEK su actividad y se sometan a su sistema.

***Artículo 3.***– Autoridad de control.

ENEEK, el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi, será la Autoridad de Control encargada de aplicar el sistema de control en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi en aplicación del sistema de control de los productos agrarios ecológicos establecido en el artículo 27 del Reglamento (CEE) 834/2007.

***Artículo 4.***– Productos, servicios y/o establecimientos recomendados por ENEEK.

1.– ENEEK podrá recomendar la utilización de todos aquellos productos, diferentes de los mencionados en el artículo 1 del Reglamento CEE 834/2007, y que intervengan en su obtención, directamente o indirecta, así como de aquellos servicios prestados a las explotaciones y a las personas inscritas en el Registro del consejo y también la actividad de ciertos establecimientos comerciales, mediante la utilización de la indicación «Producto, servicio o establecimiento recomendado por ENEEK» o similar.

2.– Gomendio-adierazlea erabili nahi duten enpresa guztiek frogatu egin beharko dute, ENEEKen dagozkion zerbitzu teknikoak konbentzitzeko moduan, produktu, zerbitzu eta establezimendu horiek Kontseiluak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztela, legeak horretarako dagozkion baldintza teknikoen koadernoetan finkaturiko eginkizunen esparruaren barruan.

3.– Kontseiluak onartu beharko ditu baldintza teknikoen koadernoak 4.1 idatz-zatian aipaturiko produktu, zerbitzu edo establezimenduak onesteko, eta baita ere enpresentzat onespen hori lortzeak eta mantentzeak ekarriko dituen eskakizun eta betebeharrak finkatzea ere, direla teknikoak eta ekonomikoak, direla haren eraginpean egongo diren kontrol-erregimenekoak.

4.– Gomendio-erregimenera biltzen diren eta ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten enpresetan berehala kenduko zaie adierazleen erabilera.

5.– Produktu, zerbitzu edo establezimenduak onesteko baldintza teknikoen koadernoak ENEEKen arau teknikoen koadrora gaineratuko dira atal espezifiko batean.

6.– ENEEKek gomendaturiko zerbitzu eta establezimenduen titularren interesak ordezkatzen dituzten elkarte edo erakundeak kontsultatuko dituzte eraginpean har ditzaketen gaietan.

***5. artikulua.***– Kalitate-sistema.

Abenduaren 29ko 10/2006 Legearen 6. artikuluaren 1. idatz-zatiaren a) letrari jarraiki, Kontseiluak kalitate-sistema bat ezarriko du nekazaritza eta elikaduraren sektorean produktu-ziurtapenak egiteko UNE-EN 45011 Europar Arauan definituriko irizpide orokorren arabera. Horrela, bermerik handiena eskaini ahalko du bere jardunen eskumenari buruz nekazaritza-ekoizpen ekologikotik lorturiko produktuen ziurtapen-jarduerari dagokionez.

Produktuaren ziurtapen-jardueretan inplikaturiko ENEEKen antolamenduaren zati osoari aplikatuko zaio.

Kalitate-eskuliburua, nekazaritza-ekoizpen ekologikoko produktuen ziurtapen-prozedura, gainerako barne-prozedura orokor eta espezifikoak, kontrol-planak eta kontrol- eta ziurtapen-jarduerarekin loturiko arau teknikoen erregelamendu eta koadernoak.

Gainera, Ziurtapen Batzorde bat sortuko da kontrol- eta ziurtapen-prozesuen inpartzialtasuna eta independentzia bermatzeko, batzorde horren osaera,

2.– Todas las empresas que quieran utilizar la indicación de recomendación tendrán que demostrar, a satisfacción de los servicios técnicos correspondientes de ENEEK, que estos productos, servicios o establecimientos cumplen las condiciones que establezca el Consejo, dentro del marco de funciones fijado en la ley, al efecto, en los correspondientes cuadernos de condiciones técnicas.

3.– Corresponderá al Consejo aprobar los cuadernos de condiciones técnicas para el reconocimiento de los productos, los servicios o los establecimientos mencionados en el apartado 4.1, así como fijar los requisitos y las obligaciones que comportará para las empresas la obtención y el mantenimiento de este reconocimiento, tanto de orden técnico y económico como de régimen de control al que se tendrán que someter.

4.– En las empresas que se acojan al régimen de recomendación e incumplan las condiciones establecidas se les retirará inmediatamente el uso de las indicaciones.

5.– Los cuadernos de condiciones técnicas para el reconocimiento de los diferentes tipos de productos, servicios o establecimientos se incorporarán al cuadro de normas técnicas de ENEEK en un apartado específico.

6.– Las asociaciones o las entidades representativas de los intereses de las personas titulares de los servicios o los establecimientos recomendados serán consultados por ENEEK en aquellas cuestiones que puedan afectarlos.

***Artículo 5.***– Sistema de la calidad.

De conformidad con el artículo 6 apartado 1 letra a) de la Ley 10/2006, de 29 de diciembre, el consejo implantará un Sistema de la Calidad según los criterios generales definidos en la Norma Europea UNE-EN 45011 para la realización de certificaciones de producto en el sector agroalimentario. De esta forma podrá ofrecer la máxima garantía sobre la competencia de sus actuaciones en relación con la actividad de certificación de los productos obtenidos de la producción agraria ecológica.

El sistema se aplicará a toda la parte de la organización de ENEEK implicada en las actividades de certificación de producto.

En el sistema de la calidad se incluirán el Manual de la Calidad, el Procedimiento de Certificación de productos de producción agraria ecológica, el resto de procedimientos internos generales y específicos, los planes de control y los reglamentos y cuadernos de normas técnicas relacionados con la actividad de control y certificación.

Además para garantizar la imparcialidad e independencia de los procesos de control y certificación se creará un Comité de Certificación. La composi-

eginkizunak eta funtzionamendu-erregimena agiri honetan bilduta daude.

***6. artikulua.***– Kontratazioko barne-jarraibideak.

Sektore publikoaren kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean ezarritakoari jarraiki, eta bereziki lege horren 3.3.b) artikuluan ezarritakoari, ENEEK sektore publikoaren zati da, eta Administrazio Publikoaz bestelako botere esleitzailetzat hartzen da lege horri dagokionez.

Lege horren 175. artikulu horrek ezartzen duenez, Administrazio Publikoez bestelako botere esleitzaileek jarraibide batzuk, dagokien barne-esparruan nahitaez bete beharrekoak, onartu behar dituzte harmonizaturiko erregulaziopean ez dauden kontratuen kontratazio-prozedura arautzen dituztenak.

Aurrekoa betetzeko, kontratuen esleipen-prozesuan parte hartzeko interesa duten guztien eskueran egongo diren kontratazio-jarraibideak izango ditu ENEEKek, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira www.eneek.org web orrian.

***7. artikulua.***– Kontseiluaren egoitza.

Honako hau da egoitzaren helbidea: Anboto kalea, 4, Zornotza (Bizkaia).

II. TITULUA

ERREGISTROAK ETA IZENA EMATEKO PROZESUA

***8. artikulua.***– Operadoreen erregistroa.

1.– Produktu ekologikoen produkzioko, elaborazioko, inportazioko edota merkaturatzeko enpresen titular diren pertsona fisiko edota juridiko guztiek eman ahalko dute izena, betiere jarduera horietarako duten dedikazioa behar bezala egiaztatzen badute eta nekazaritza-ekoizpen ekologikoaren araudia betetzeko ziurtapen-prozedura gainditzen badute.

2.– 834/2007 EEE Erregelamenduaren nekazaritza-ekoizpen ekologikoaren adierazle babestu guztiak erabili nahi dituzten pertsona fisiko edota juridiko guztiek erregistroan izena emanda egon behar dute eta ziurtapen-prozeduraren eraginpean.

3.– Erregistroa honako atal hauetan egituratzen da:

a) Nekazaritzako ekoizpen-unitateetako titularren atala.

Nekazari, ganaduzale eta ekoizpeneko nekazaritza-enpresetako beste titular batzuk, Euskadiko Autonomia Erkidegoan kokatutakoak, betiere nekazaritza-ustiapenean ustiapen horretan lorturiko produktuak lortzeko, ontziratzeko eta lehen etiketa jartzeko lanak egiten badituzte. Nekazaritza-jarduera ekologikora

ción, funciones y régimen de funcionamiento de este comité se recogen en este documento.

***Artículo 6.***– Instrucciones internas de contratación.

De conformidad con lo establecido en la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, y en particular en el artículo 3.3.b) de la misma, ENEEK, forma parte del sector público y a los efectos de dicha Ley tiene consideración de poder adjudicador distinto de la Administración Pública.

El artículo 175 de la mencionada Ley establece que los poderes adjudicadores distintos de las Administraciones Públicas deben aprobar unas instrucciones, de obligado cumplimiento en el ámbito interno de las mismas, en las que se regulen los procedimientos de contratación de los contratos que no estén sujetos a regulación armonizada.

En cumplimiento de lo anterior ENEEK dispondrá de Instrucciones de contratación que estarán a disposición de todos los interesados en participar en los procedimientos de adjudicación de contratos y que serán publicadas en el perfil del contratante en el portal web: www.eneek.org.

***Artículo 7.***– Sede del Consejo.

El domicilio de la sede es la calle Anboto, 4 de Amorebieta-Etxano en Bizkaia.

TÍTULO II

REGISTROS Y PROCESO DE INSCRIPCIÓN

***Artículo 8.***– Registro de operadores o operadoras.

1.– Podrán inscribirse todas las personas físicas y/o jurídicas que sean titulares de empresas de producción, elaboración, importación y/o de comercialización de productos ecológicos que acrediten debidamente su dedicación a dichas actividades y superen el procedimiento de certificación del cumplimiento de la normativa de la producción agraria ecológica.

2.– Todas las personas físicas y/o jurídicas que quieran utilizar las indicaciones protegidas de la producción agraria ecológica que figuran en el Reglamento CEE 834/2007 tendrán que estar inscritas en el registro y sometidas al procedimiento de certificación.

3.– El registro se estructura en las siguientes secciones:

a) Sección de personas titulares de unidades productivas agrarias.

Agricultores, ganaderos y otros titulares de empresas agrarias de producción, ubicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que realicen en la explotación agraria operaciones para la obtención, envasado y primer etiquetado de los productos obtenidos en dicha explotación. También figurarán los productores

bihurtzeko prozesuan dauden ekoizleak ere agertuko dira.

b) Enpresa elaboratzaileetako titularren atala.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan kokaturiko eta produktu ekologikoen kontserbazio- edota transformazio-lanak (akabatzea eta animalia-produktuen zatikatzea barne) egiten dituztenak, baita ontziratzea edota ekoizpen ekologikoko metodoari buruzko etiketen aldaketak ere.

c) Hirugarren herrialdeetako enpresa inportatzaileen titularren atala.

Hirugarren herrialdeetako nekazaritza-ekoizpen ekologikotik datozen produktuak inportatzen dituzten Euskadiko Autonomia Erkidegoan kokaturiko enpresak.

d) Merkaturatze-enpresetako titularren atala.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan kokaturiko enpresak, nekazaritza ekologikoaren ekoizpenaren produktuen salmentako (salmenta-eskaintza barne), banaketako edo transferentziako beste edozein motatako –dela kostu bidezkoa, dela doakoa– lanetan aritzen direnak.

4.– Ziurtapenari dagokionez ekoizpen ekologikoko ekoizleen elkarte gisa eratzen diren ekoizpeneko nekazaritza-enpresen titularrek beren banakako erregistroari eutsiko diote erregistroan. Kontsiderazio hori ENEEK osatzen duten pertsonentzako ezarritako gainerako betebehar eta eskubideetara zabaltzen da, zehapen-erregimena eta hauteskunde-erregimena barne.

5.– Erregistroaren atal bati baino gehiagori dagozkion jarduerak egiten dituztenak atal horietako bakoitzean erregistratuta agertuko dira.

6.– Honako datu hauek erregistratuko dira erregistroan:

a) Pertsonaren datuak:

Ustiapenaren titularraren edo kotitularraren izen-abizenak, IFZ eta helbidea. Pertsona juridikoak badira, IFK, izen soziala, helbide soziala eta ENEEKen aurrean erantzule den pertsonaren datuak.

b) Espedientearen datuak izena ematen duen erregistroaren atalerako;

– Ustiapenaren edo enpresaren produkzio-unitateen, lurzatien, eraikuntzen eta instalazioen datuak: mota, azalera, eta dagokion kokapenaren erregistroaren eta erroldaren araberako datuak.

– Jardueraren, jarduera nagusiaren, dedikazio esklusibo edo mistoaren, produktu edota laboreen, kantitate edota azaleren eta kokatzen direneko produkzio-unitatearen datuak.

– Azpikontratatzen bada, instalazioen, makinen edo beste enpresetako zerbitzuen datuak.

que se encuentren en proceso de conversión hacia la actividad agraria ecológica.

b) Sección de personas titulares de empresas elaboradoras.

Empresas ubicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi que realicen operaciones de conservación y/o transformación de productos ecológicos (incluido el sacrificio y despiece de productos animales), así como el envasado y/o alteraciones del etiquetado relativas al método de producción ecológica.

c) Sección de personas titulares de empresas importadoras de terceros países.

Empresas ubicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi que importen productos procedentes de la producción agraria ecológica de países terceros.

d) Sección de personas titulares de empresas de comercialización.

Empresas ubicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, dedicadas a las operaciones de venta, incluida la oferta de venta, distribución o cualquier otra forma de transferencia, ya sea a título oneroso o gratuito, de productos de la producción agraria ecológica.

4.– Las personas titulares de empresas agrarias de producción que a efectos de la certificación se constituyan como agrupaciones de productores de producción ecológica, mantendrán su inscripción individual en el registro. Esta consideración también se extiende al resto de obligaciones y derechos establecidos para las personas que integran ENEEK, incluidos el régimen sancionador y el régimen electoral.

5.– Las personas que realicen actividades que correspondan a más de una sección del Registro figurarán inscritas en cada una de ellas.

6.– En el registro se inscribirán los siguientes datos:

a) Datos de la persona:

Nombre y apellidos de la persona titular o cotitular de la explotación, NIF y dirección. Si se trata de personas jurídicas CIF, razón social, domicilio social y datos de la persona responsable ante ENEEK.

b) Datos del expediente para la sección del registro en la que se inscribe;

– Datos de las unidades productivas de la explotación o la empresa, parcelas, construcciones e instalaciones: tipo, superficie y datos regístrales y catastrales de su ubicación.

– Datos de la actividad, actividad principal, dedicación exclusiva o mixta, productos y/o cultivos, cantidades y/o superficies y unidad productiva en la que se ubican.

– En caso de subcontratación, datos de las instalaciones, maquinaria o servicios de otras empresas.

7.– Honako euskarri hauetan antolatzen da erregistroa:

– Izena emateko liburua atal bakoitzerako euskarri informatikoan.

– Aurkezten diren agiriak bertan gaineratzeko espedienteen artxibo fisiko edo informatikoa.

8.– ENEEKen zuzendariak gainbegiratuko du datuak eguneratzeko lana.

***9. artikulua.***– Erregistroan izena ematea, zabaltzea eta berritzea.

1.– Erregistroan izena emateko, zabaltzeko edo berritzeko ENEEKi zuzenduriko eskaera bat aurkeztu behar da. Eskaera zuzenean aurkez daiteke ENEEKen egoitzan, postaz edo web orrian balia daitekeen tresna informatikoa erabilita.

2.– Titulartasuna eta izena eman beharreko jardueretarako dedikazioa egiaztatzen duten agiriak erantsi behar dira izen-ematean. Pertsona juridikoen kasuan izen-ematea eskatzeko dagokion gobernu-organo gorenaren erabakiaren ziurtapena esleituko da, baita ENEEKen aurrean lan hori betez jardungo duen ordezkariaren izendapena ere.

3.– Bihurtzealdiak ezarri behar direnean, izena emateko edo zabaltzeko eskaera aurkezten den egunak finkatuko bihurtzealdiaren zenbaketaren hasiera.

4.– Erregistroan izena emateak ez ditu interesdunak salbuesten oro har ezarritako beste erregistro batzuetan izena eman behar izatetik. Horietan bilduta egotearen ziurtagiri eguneratuarekin batera entregatu beharko da eskaera.

5.– Erregistroan izena emateak, baldintza orokorrez gain, baldintza partikularrak ere ekar ditzake erabilitako produktu edo prozesu motaren arabera. Izen-ematearen ebazpenean idazki bidez bilduko dira baldintza partikularrak. Izena emateko baldintzak eguneratzen dituen ebazpen berri batean bildu beharko litzateke ondorengo edozein aldaketa.

6.– Kontseiluaren presidenteak erregistroan izena emateko, zabaltzeko edo berritzeko ebazpena emango du. Aurretik, nekazaritza-ekoizpen ekologikoko araudia betetzeko ziurtapen-prozeduraren eraginpean jarri behar da eskatzailea.

Erregistroan izena emateko edo berritzeko ebazpena baliokoa izango da emandako ziurtapena indarrean dagoen bitartean. Ziurtapen-prozeduran ezartzen da ziurtapenaren indarraldia.

7.– ENEEKek eskaerak ukatu egingo ditu izena emateko, zabaltzeko edo berritzeko prozesuaren eskakizunetara egokitzen ez badira. Eskaeran deskribatu-

7.– El Registro se organiza con los siguientes soportes:

– Libro de inscripciones para cada sección en soporte informático.

– Archivo físico o informático de los expedientes en el que se incorporan los documentos que se vayan presentando.

8.– La labor de actualización de los datos estará supervisada por el Director de ENEEK.

***Artículo 9.***– Inscripción, ampliación y renovación en el Registro.

1.– Para la inscripción, ampliación o renovación del registro se debe presentar una solicitud dirigida a ENEEK. La solicitud se puede presentar directamente en la sede de ENEEK, por correo o empleando la utilidad informática dispuesta en la página web.

2.– En la inscripción se deben adjuntar los documentos que acrediten la titularidad y dedicación a las actividades a inscribir. En el caso de personas jurídicas se adjuntará una certificación del acuerdo de su máximo órgano de gobierno para solicitar la inscripción, así como el nombramiento del representante legal ante ENEEK.

3.– Cuando sea necesario establecer periodos de conversión, será la fecha de presentación de la solicitud de inscripción o ampliación la que determine el inicio del cómputo del periodo de conversión.

4.– La inscripción en el Registro no exime a las personas interesadas de la obligación de inscribirse en aquellos otros registros que con carácter general estén establecidos. La solicitud se tendrá que acompañar de la certificación actualizada de inclusión en los mismos.

5.– La inscripción en el Registro además de las condiciones generales puede comportar condiciones particulares en función del tipo de producto o proceso utilizado. Las condiciones particulares se recogerán por escrito en la resolución de la inscripción. Cualquier modificación posterior debería recogerse en una nueva resolución que actualice las condiciones de inscripción.

6.– El Presidente o la presidenta del Consejo emitirá la resolución de la inscripción, ampliación o renovación en el registro. Previamente la persona solicitante se debe someter al procedimiento de certificación del cumplimiento de la normativa de Producción Agraria Ecológica.

La resolución de inscripción o de renovación en el registro tendrá validez mientras se encuentre vigente la certificación concedida. El periodo de vigencia de la certificación se establece en el procedimiento de certificación.

7.– ENEEK denegará las solicitudes cuando no se ajusten a los requisitos del proceso de inscripción, de ampliación o de renovación. Cuando la actividad a

riko garatu beharreko jarduerak nekazaritza-ekoizpen ekologikoko araudia betetzea ahalbidetzen ez duenean. Eskatzaileek frogatzen ez dutenean ezarritako kuotekin edo ENEEKekin harturiko beste betebehar batzuekin egunean daudela.

Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtso jar dakioke Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari.

Erregistrotik baja hartzeko eskaera berri bat egiteko igaro beharreko gutxieneko denboraldia ezartzen da, prozedura honetan deskribaturiko zehapen-erregimenaren arabera.

8.– Erregistroan izena emateko, zabaltzeko edo berritzeko eskaera legez ezarritako kuotaren ordainagiriarekin batera entregatu behar da. Izen-emateak ebazpen negatiboa badu, izen-emate kuota ez da itzuliko eginiko lanen konpentsazio gisa. Berritzearen ebazpen negatiboak ez du eragingo bukatzeko dagoen urtea dela-eta ordainduriko mantentze-kuota itzultzerik.

III. TITULUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

***10. artikulua.***– Eskubideak

1.– Honako hauek dira erregistraturiko pertsonen eskubideak:

a) Beren produktuak 834/2007 (EEE) Erregelamenduan ezarririko ekoizpen-arauen arabera ekoitzi edota lantzea, baita aplikatzekoak diren gai berari buruzko gainerako xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera.

b) 834/2007 EEE Erregelamenduan eta gainerako xedapen gehigarrietan adierazitako adierazle babestuak erabiltzea nekazaritza-ekoizpen ekologikotik datozen nekazaritza- eta elikadura-produktuak merkaturatzeko. Bermezko beste edozein izendapen edo markak ere babestu ahalko ditu produktu horiek.

c) Erregistratuta daudela edo ziurtapena aipatzea erregelamendu honetan edo ziurtapen-prozeduran aipaturiko moduan.

d) Aurkezturiko eskaeren izapidetzearen egoerari eta izan daitezkeen arazo eta gabeziei buruzko informazioa jasotzea.

e) Erabilitako indarreko prozedura guztien eta egin daitezkeen aldaketen berri izatea, batez ere ziurtapen-sistemari buruzkoen berri.

f) ENEEKek egindako nekazaritza eta elikadura ekologikoko produktuen sustapen- eta zabalkuntza-jardun generiko guztien berri izatea eta horietan parte hartzeko aukera izatea.

desarrollar descrita en la solicitud no permita el cumplimiento de la normativa de producción agraria ecológica. Cuando las personas solicitantes no demuestren estar al corriente de las cuotas establecidas o de otras obligaciones contraídas con ENEEK.

Contra esta resolución se podrá presentar recurso de alzada ante el Consejero o la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

En los casos de baja del registro se establece un periodo mínimo de tiempo a transcurrir para poder proceder a una nueva solicitud de conformidad con el régimen sancionador descrito en este procedimiento.

8.– La solicitud de inscripción, ampliación o renovación en el registro debe ir acompañada del justificante de pago de la cuota legalmente establecida. En caso de resolución negativa de la inscripción no se devolverá la cuota de inscripción como compensación de los trabajos realizados. La resolución negativa de la renovación no será motivo de devolución de la cuota de mantenimiento satisfecha por el año corriente.

TÍTULO III

DERECHOS Y OBLIGACIONES.

***Artículo 10.***– Derechos.

1.– Los derechos de las personas inscritas son:

a) Producir y/o elaborar sus productos de acuerdo con las normas de producción establecidas en el Reglamento (CEE) 834/2007, así como en las demás disposiciones complementarias referidas al mismo objeto que sean de aplicación.

b) Utilizar las indicaciones protegidas indicadas en el Reglamento CEE 834/2007 y demás disposiciones complementarias, en la comercialización de los productos agrarios y alimenticios procedentes de producción agraria ecológica. Estos productos podrán ser amparados a su vez por cualquier otra denominación o marca de garantía.

c) Hacer referencia a la condición de registradas o a la certificación de la manera definida en este Reglamento y en el Procedimiento de Certificación.

d) Recibir información del estado de la tramitación de las solicitudes presentadas y de los posibles problemas y carencias.

e) Estar informadas de todos los procedimientos vigentes utilizados y los cambios que pudieran hacerse, especialmente los relativos al sistema de certificación.

f) Estar informadas y poder participar en todas las actuaciones de promoción y difusión genéricas de productos agroalimentarios ecológicos efectuadas por ENEEK.

g) ENEEKen hauteskunde-prozesuetan hautesle gisa eta Kontseiluko kide izateko hautagai gisa parte hartzea.

h) Beren eskubide eta jardueretarako kaltegarritzat jotzen dituzten ENEEKek egindako egintza guztiak errekurritzea, baita nekazaritza eta elikadura ekologikoko ekoizpenen garapen orokorrerako kaltegarritzat jotzen dituztenak ere. Edozein kasutan, errekurtso bat aurkezteak ez du eraginik izango ziurtapena kentzeko ebazpenaren eta erregistroko ondoriozko bajaren gain.

i) Interesdun guztiek eskuratu ahalko duten izena emandako ustiapen eta enpresen indarreko direktorioaren agertzea.

***11. artikulua.***– Betebeharrak.

1.– Honako hauek dira izena emandako pertsonen betebeharrak:

a) 834/2007 (EEE) Erregelamenduak ezartzen dituen arauak betetzea, baita gainerako xedapen gehigarriak, barne-erregimeneko erregelamendu hau, arau teknikoen koadernoa eta ENEEKek harturiko erabakiak ere, eta, oro har, indarrean dagoen nekazaritza-ekoizpen ekologikoaren eta horien adierazle babestuen arloan indarrean dagoen araudia.

b) ENEEKek adostuta harturiko erabaki eta jardun-norabideak betetzea.

c) Jarduera egikaritzeko legez ezarritako edozein betebehar mota betetzea.

d) Ziurtapen-prozeduran ezarritako betebeharrak betetzea:

– Beren enpresa kontrol-erregimenpean jartzea eta hori egiteko kostua ordaintzea.

– ENEEKek egiten dituen auditoria eta kontrol-bisitetan laguntzea, eta auditoreen lana erraztea. Eskaturiko informazioa ematea eta ustiapenaren edota enpresaren zati, bulego eta eraikuntza guztiak libre baliatzeko aukera ahalbidetzea, baita dagozkion agiri tekniko, industrial, merkataritza-arloko eta kontabilitate-arloko guztiak ere.

– Salgaien mugimendua eta eginiko eragiketak justifikatzeko balio duen dokumentazio guztia erakustea.

– Laginak hartzeko aukera ahalbidetzea eta araudia ez-betetze posiblearen ondorioz sortzen diren analisi errepikatuen kostua beren kargu hartzea.

– ENEEKi idazki bidez jakinaraztea antolamendua eta zuzendaritza, nortasun juridikoa eta ekoizpen-unitate eta industriak edota lortzeko produktu eta prozesuak eraginpean hartzen dituzten aldaketa guztiak, eta, oro har, nekazaritza-ekoizpen ekologikoko sistematik datozen produktuen azken kalifikazioa eraginpean hartzen dituztenak. Aldaketak Kontseiluaren

g) Participar en los procesos electorales de ENEEK como electoras y candidatas a miembro del Consejo.

h) Recurrir todos los actos realizados por ENEEK que consideren lesivos para sus derechos y actividades, así como para el desarrollo general de las producciones agroalimentarias ecológicas. En cualquier caso, la presentación de un recurso no tendrá efecto sobre la resolución de retirada de la certificación y consiguiente baja en el registro.

i) Figurar en el directorio vigente de explotaciones y empresas inscritas que estará a disposición de todas las personas interesadas.

***Artículo 11.***– Obligaciones.

1.– Las obligaciones de las personas inscritas son:

a) Cumplir las normas que establecen el Reglamento CEE 834/2007, así como las demás disposiciones complementarias, este Reglamento de Régimen Interno, el Cuaderno de normas técnicas, así como los acuerdos adoptados por el consejo de ENEEK y, en general, la normativa vigente en materia de producción agraria ecológica y de utilización de sus indicaciones protegidas.

b) Cumplir con las decisiones y directrices de actuación adoptadas por acuerdo del consejo de ENEEK.

c) Cumplir con cualquier tipo de obligación legalmente establecida para el desempeño de la actividad.

d) Cumplir las obligaciones establecidas en el Procedimiento de Certificación:

– Someter a su empresa al régimen de control y abonar el coste de realización del mismo.

– Colaborar en las auditorias y visitas de control que realice ENEEK, y facilitar la tarea de los auditores. Proporcionar la información solicitada y permitir el libre acceso a todas las parcelas, dependencias y edificaciones de la explotación y/o la empresa, así como a su documentación técnica, industrial, mercantil y contable.

– Exhibir la documentación que sirva de justificación del movimiento de mercancías y de las transacciones realizadas.

– Permitir que se practique la toma de muestras y hacerse cargo del coste de los análisis repetidos que se originen como consecuencia del posible incumplimiento de la normativa.

– Comunicar por escrito a ENEEK todas las modificaciones que afecten a la organización y dirección, personalidad jurídica y a las unidades productivas e industrias y/o los productos y procesos de obtención y, en general, las que afecten a la calificación final de los productos que provengan del sistema de producción agraria ecológica. Cuando la modificación re-

aldez aurreko baimena behar badu, beharrezko aurrerapenarekin jakinarazi beharko da.

– Bezeroekiko erreklamazio-sistemari eustea ziurtaturiko produktuei dagokienez, hala badagokio.

e) 834/2007 EEE Erregelamenduak aipatzen dituen adierazle babestuak eta ENEEKek eskaturiko salgaien zirkulazio- eta kontrol-agiriak nekazaritza-ekoizpen ekologikoko araudia betetzen duten nekazaritza- eta elikadura-produktuetan soil-soilik erabiltzea. Kasu guztietan ere, ezinbesteko baldintza izango da operadoreen erregistroaren dagokion atalean izena emanda egotea.

f) ENEEKek finkatzen duen kuotaren zenbatekoa onartzea, indarrean dagoen kuoten eta kontrol-gastuen agirian bilduko dena. Agiri hori eskatzaile eta erregistratuei emango zaie eta ENEEKek urtero berrikusiko du. Zenbateko jakin batzuetatik aurrera, kuotaren ordainketa zatikatua ahalbidetuko da agiri horretan ezarritakoaren arabera.

g) Zehapen-espediente baten ebazpenaren ondorioz ezarritako zehapenak betetzea, administrazio-bidean irmo bihurtutakoan.

h) ENEEKi baimena eskatzea nekazaritza-ekoizpen ekologikoko metodoari buruzko adierazleak eraman behar dituzten produktuen edozein publizitate- eta sustapen-materialen edukiei buruz. Inprimatzearen eta zirkulazioan jartzearen aldez aurreko baldintza da baimen hori.

i) Baimena eskatzea ENEEKi adierazle babestuak erabili behar duen edozein produktu merkaturatzeko. Produktu horiekin batera agertu beharreko etiketa-eredua bildu beharko du baimen horrek. Merkaturatu beharreko produktu mota bakoitzerako baimena eskatu beharko da, eta gauza bera egin beharko da produktua edota haren etiketa eraginpean hartzen duen edozein aldaketa sartu nahi denean. Produktu horiek zirkulazioan jartzearen eta merkaturatzearen aldez aurreko baldintza da baimen hori.

j) Beren lokaletan sartzen diren nekazaritza-ekoizpen ekologikoko produktuek kalifikazioari dagokionez zalantzarik planteatzen ez dutela egiaztatzea.

k) ENEEKen helburuen aurka ez jardutea, haren irudiari kalterik ez egitea, eta izen ona ken diezaioketen egintzarik ez egitea.

l) Nekazaritza-ekoizpen ekologikoko produktuen ekoizpena eta merkaturatzea aktiboki sustatzea eta bultzatzea.

m) ENEEKi jakinaraztea edo salatzea nekazaritza-ekoizpen ekologikoko produktuei dagokienez detektatzen diren irregulartasun eta iruzurrak.

quiera autorización previa del Consejo deberá notificarse con suficiente antelación.

– Mantener un sistema de reclamaciones ante sus clientes con relación a los productos certificados, si procede.

e) Utilizar las indicaciones protegidas en que hace referencia el Reglamento CEE 834/2007 y los documentos de circulación y de control de mercancías exigidos por ENEEK, únicamente en aquellos productos agrarios y alimenticios que cumplan la normativa de producción agraria ecológica. En todos los casos, será condición indispensable figurar inscrito en la sección correspondiente del Registro de operadores y operadoras.

f) Abonar el importe de la cuota que fije ENEEK y que se recogerá en el documento de Cuotas y gastos de control en vigor. Este documento se facilitará a los solicitantes y registrados y se revisará anualmente por el Consejo de ENEEK. A partir de determinados importes se permitirá el fraccionamiento del pago de la cuota de acuerdo a lo establecido en dicho documento.

g) Hacer efectivas las sanciones impuestas como consecuencia de la resolución de un expediente sancionador, una vez se conviertan en firmes en la vía administrativa.

h) Solicitar autorización a ENEEK sobre los contenidos de cualquier material de publicidad y promoción de los productos que tengan que llevar indicaciones referentes al método de producción agraria ecológica. Esta autorización es condición previa a la impresión y puesta en circulación.

i) Solicitar autorización a ENEEK para la comercialización de cualquier producto que tenga que utilizar las indicaciones protegidas. Esta autorización incluirá el modelo de etiquetado que acompañará a estos productos. Se tendrá que solicitar autorización para cada tipo de producto a comercializar y también siempre que se quiera introducir cualquier modificación que afecte al producto y/o a su etiquetado. Esta autorización es condición previa a la circulación y la comercialización de estos productos.

j) Comprobar que los productos de producción agraria ecológica que entren en sus dependencias no plantean ninguna duda con respecto a su calificación.

k) No actuar en contra de los fines de ENEEK, causar daños contra su imagen, ni realizar actos que pudieran desprestigiarlo.

l) Fomentar y promover activamente la producción y comercialización de los productos de producción agraria ecológica.

m) Comunicar y/o denunciar ante ENEEK las irregularidades y fraudes, que detecten en relación con los productos de producción agraria ecológica.

2.– Nekazaritza-produktuekin lan egin behar denean ere nekazaritza-ekoizpen ekologikoaren adierazle babestuak erabiltzeko eskubiderik gabe, aldez aurretik aurkeztu behar da ezarri beharreko neurrien protokolo zehatz bat babesturiko produktuekin edozein kutsadura, nahaste edo errakuntza saihesteko. ENEEKek neurriak hartu ahalko ditu kasu horietarako eta betearaziko ditu.

3.– Baja boluntarioa gertatzen bada edo nekazaritza- eta elikadura-jarduera utziz gero, berehala jakinarazi behar zaio idazki bidez ENEEKi, berehala utzi behar zaio adierazle babestuak erabiltzeari eta ENEEKek entregaturiko erabili gabeko salgaien zirkulazio- eta kontrol-agiri guztiak itzuli behar dira. Adierazle babestuen aipuak dituzten merkataritza-agiri eta etiketa guztiak erabileratik eta zirkulaziotik kendu egin beharko dira.

IV. TITULUA

KONTROL SISTEMA

***12. artikulua.***– Agiriak.

1.– Erregistroan izena emandako edonor ENEEKen kontrol-erregimenaren pean egongo da 834/2007 EEE Erregelamenduaren V. tituluan ezarritako betebeharren eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenen arabera. Betebehar horiei jarraiki, honako formalitate hauek bete behar dituzte ENEEKen erregistroan izena emandako guztiek:

a) Ekoizpeneko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetako titularrak: Ustiapen-koaderno bat edo erregistro-sistema bat eraman behar dute, inputen sarrerako datu guztiak bertan idazteko, data, mota, kantitatea eta erabilera, ekoizpenak edo lorturiko uztak eta sarerako datu guztiak, abiapuntua eta helmuga adierazita, zehaztuta, baita ENEEKen zuzendaritza teknikoaren ustez beharrezkoak diren gainerako datuak ere. ENEEKek zehatz-mehatz ezarriko ditu izena emandako jardueretarako erregistroen edukiak. Izena emandako titular bakoitzak bere erregistro-sistema propioa eratu ahalko du, eta ENEEKek onartuko du, betiere jardueren kontrol eraginkorra ahalbidetzen badu. Erregistroak etengabe eguneratuta egon behar du eta ENEEKen eskueran betiere.

b) Enpresa elaboratzaile, inportatzaile eta merkaturatzaileetako titularrak: Kudeaketa- eta kontabilitatesistema bat eraman behar dute, erabilitako lehengai eta osagaien jatorria, lorturiko ekoizpenak eta zertarako ezagutzea ahalbidetuko duena, produktuen trazabilitatea bermatuta une oro. ENEEKek sistemaren gutxieneko edukiak ezarriko ditu eta enpresa bakoitzak bere eredu propioa aurkeztuko du, eta ENEEKek onartu egingo du, betiere jardueren kontrol eraginkorra ahalbidetzen badu. Informazio eguneratua edukitzea ahalbidetu behar du sistemak, betiere ENEEKen eskueran.

2.– Cuando también se vaya a trabajar con productos agrarios sin derecho a utilizar las indicaciones protegidas de la producción agraria ecológica, presentar previamente un protocolo detallado de las medidas a implantar para evitar cualquier contaminación, mezcla o confusión con los productos amparados. ENEEK podrá adoptar normas para estos supuestos y velará por su cumplimiento.

3.– En el caso de baja voluntaria o de abandono de la actividad agroalimentaria ecológica comunicar inmediatamente por escrito a ENEEK, cesar inmediatamente en el uso de las indicaciones protegidas y devolver todos los documentos de circulación y control de mercancías sin utilizar entregados por ENEEK. Todos los documentos comerciales y etiquetas con referencias a las indicaciones protegidas se tendrán que retirar del uso y la circulación.

TÍTULO IV

SISTEMA DE CONTROL

***Artículo 12.***– Documentación.

1.– Toda persona inscrita en el Registro deberá someterse al régimen de control de ENEEK con arreglo a las obligaciones establecidas en el Título V del Reglamento CEE 834/2007 y demás disposiciones de aplicación. Dichas obligaciones exigen que las personas inscritas en el Registro de ENEEK cumplan las siguientes formalidades:

a) Las personas titulares de explotaciones agropecuarias de producción: tienen que llevar un cuaderno de explotación o sistema de registro en el que se anoten todos los datos de entradas de insumos especificando fecha, tipo, cantidad y uso, las producciones o cosechas obtenidas y todos los datos de salidas indicando origen y destino, así como todos los demás datos que la dirección técnica de ENEEK considere necesarios. ENEEK establecerá en detalle los contenidos de los registros para las diferentes actividades inscritas. Cada persona titular inscrita podrá confeccionar su propio sistema de registro, que será aprobado por ENEEK, siempre que permita un control eficaz de sus actividades. El registro tendrá que estar permanentemente actualizado y a disposición de ENEEK.

b) Las personas titulares de empresas elaboradoras, importadoras y comercializadoras: tienen que llevar un sistema de gestión y contabilidad que permita conocer el origen de las materias primas e ingredientes empleados, producciones obtenidas y destino, garantizando en todo momento la trazabilidad de los productos. ENEEK establecerá los contenidos mínimos del sistema y cada empresa presentará su modelo propio que será aprobado por ENEEK, siempre que permita un control eficaz de sus actividades. El sistema debe permitir disponer de la información actualizada y a disposición de ENEEK.

